

GARAIZ HAGO ORAINDIK, CLARICE

Aurtengo liburuaren egunerako testutxo bat eskatu zidaten EIZIEko adiskideek. Munduaren akabua gertatu baino aste batzuk lehenago eskatu ere. Orduan, Gipuzkoa plaza azken urteotan EIZIEk Donostia Kulturarekin batera antolatu izan duen ekitaldirako irakurgai bat bidali nuen, irakurraldiari nolabait ere bide emateko. Gaur egun, ordea, beste urgentzia bat hartu dute kulturaren beharrak eta herrien arteko elkartasun-zubiek. Barbaroak ateetan ditugula esatea ez da dagoeneko Alexandriako ero baten burutazioa. Ez dakit Troiako zaldia ez ote den dagoeneko botaka ari herriko plaza. Irakurri, otoi: kultura ala basakeria.

Zorion klandestino itzuli eta bost urtera datoz gogoeta hauek. Bost urte ez dira alferrik pasatu. Bitarte honetan, berrehun ale baino gutxiago saldu dira, eta espainiar administrazioaren menpeko lau lurraldeotako liburutegi-sarean 42 ale daude eta, guztira, 148 aldiz mailegatu dira (martxoaren 2an bildu ditut datuok). Gure neurrirako ez dakit datuok esanguratsuak diren; apal xamarrak direla esango nuke. Esango nuke orobat liburu bere garaian oharkabean pasatu zela, eta gogoan dut baneukala esperantzarik liburu honekin, irakurriko zela eta zabalduko zela, inguru batzuetan behintzat korrituko zuela –idazle (proto)feminista den aldetik–. Gero, irakurle taldeetan ibilitako lagunak esan didate liburu zaila dela eta irakurleak ezinean ibiltzen direla. Eta bai, liburu zaila da, ez baitzen adimenaren bidez ulertzeko idatzi, sentitua izateko baino. Eta, hori esatea eta deus ez esatea parekoak direnez, sentipen zerrenda bat egin dizuet.

Liburu hartu eta orri-pasa hasi naiz, memoriak tankeratutako sentipenak hona ekartzeko.

Zerrenda osatzen ari nintzela, euria ari zuen kanpoan, afruntua, eta nik Brasilen egon nahi nukeen, Rion edo Recife (batean zain bestean). Zerrenda noka atera zitzaidan, Lispectorren abots estrainioak diktaturik:

- liburuek salbatu egingo haute
- sadikoak ez din egundo amore ematen
- adiskidetasunaren bide bihurrietan dena dun aukerakoa
- batzuetan hobe dun argi ez ikustea ikusi nahi dunana ikusteko
- inauterietako usainak, sexu-esnaldiak, izerdi parrandazaleak
- baditun, izan, zuhaitz bihurtzen diren adineko ximurrak, bejetalizatu egiten direnak (horietakoa nahi niken izan, baina ez oraindik)
- txakurrak, oiloak, matxinsaltoak, tximinoak, oro nahas, oro hitzun, oro sinbolo
- «maitatua izan gabe maitatzen ari nintzen» esaten duen pertsonaiaren patetismo besarkagarria
- hondar mugikorrek zurrupatutako biziak
- oturuntza lisergikoak
- altxorren bilaketa ia kabalistikoak
- ...

Lege onekoa litzateke zerbait esatea itzulpenaz, liburuaren itzultzaile naizen aldetik, baina ez dakit zer esan nezakeen: lana arin eta aise egin nuen, berez bezala, eta dokumentazio-lanean loriatu nintzen, Lispectorrek badaukalako ezin esanezko zerbait, ezin harrapatuzko mixterio bat, nik –esan beharrik ez dago– harrapatzerik izan ez nuena, baina sumatu bai egin nuen. Positibismoa erabat erregina den denbora honetan, mixterioek esperantza dakarte, zorion klandestino baten esperantza.

Izan zoriontsu, izan klandestino. Bizji uros, bizji ezketuan.

Iñigo Roque
2020-07-23